

# Haurra hezkuntza-ekintza ororen abiapuntua eta jomuga. Tailer pedagogikoetan antolatzen diren Eskola Txikien esperientziak

**Tesiaren egilea:** Garazi Ormazabal Arizkorreta

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

**Saila/Instituta:** Psikodidaktika

**Doktorego-programa:** Psikodidaktika: Hezkuntzaren Psikologia eta Berariazko Didaktikak

**Jakintza-arloa:** Hezkuntza

**Tesi-zuzendaria:** Andoni Arguiñano Madrazo eta Inaki Karrera Xuarros

**Tesiaren laburpena:**

Gizarte, kultura, politika, ekonomia zein teknologia arloetako aldatetek ezaugarritzen duten testuinguru honetan, zalantzarria da orokortuak diren hezkuntza-esperientziek inguratzen gaituen errealitate aldakorrari erantzun egokia ematen dioten ala ez. Egoera horren aurrean, hainbat hezkuntza-erakundek adierazi dute hezkuntza-berrikuntzaren beharra, eta, eginbide horretan, haurra hezkuntza-ekintza ororen erdigunean ezartzen duten esperientzien alde aldarri egin da.

Haurra hezkuntza-eraldaketa ororen foku zein abiapuntu bihurtzen den honetan, beharrezkoa da haurren gaitasunen zein eskubideen aldeko ikuskeran jarduten duten esperientzietan sakontzea. Hutsune hori gainditzean eta haurra eskolaren erdigunean kokatzen duten esperientzien sakontzean egin nahi du ekarpena doktorego-tesi honek.

Euskal landa-eremuan kokatutako Eskola Txikien Sareko sei eskola ikerketa-agertoki bihurtuz, ikerlan honek honako helburu hauek biltzen ditu: batetik, tailerretan antolatzen diren Eskola Txikien praktika pedagogikoa aztertzea, haurra ikaskuntzaren erdigunean ezartzeko eta horren baitan jarduteko oinarritzat dituzten estrategia pedagogikoak identifikatzu; bestetik, tailerretan antolatzen diren Eskola Txikien praktika zein estrategia pedagogikoei haurrei zein irakasleei eragiten dizkieten onurak eta erronkak azalartzea.

Ikerketa etnografiko kritiko hau elkarrekin loturik dauden baina modu bereizian garatu diren lau estudioren bidez garatu da. Aitzitik, guztiak landa-lan beraren emari izan dira. Hots, behaketa parte-hartzaileetan, dokumentuen analisisian eta haurrekin zein irakasleekin eginiko Focus Group-etan oinarritu da azterketa. Lau estudio izanik, kategorizazio- zein kodifikazio-prozesuei jarraituz, lau analisi osatu dira.

Doktorego-tesi honen bidez ikusi dugu, haurrak eskubideak zein gaitasunak dituzten pertsona gisa ulertzen dituzten eskola hauetan, hezkuntza-metodologia aldatu ez ezik, eskola-antolakuntza, haurren taldekatzeak, irakasleen funtzioak eta

denbora zein espazioak ere birmoldatu dituztela. Gainera, erakutsi dugu horrek guztiak hurrei zein irakasleei zenbait onura eragiten dizkiela, besteak beste, ikaskuntza pertsonalizatuagoa, motibatzaileagoa zein sortzaileagoa, hain zuzen, besteak beste, ongizatea, elkar ikaskuntza, autonomia eta autodiziplina garatzen dituen.